



LIBURUA

Hari eta argizarizko lumak



ZELDAK -GORPUTZ HONETATIK- ELENA OLAVE

BALEA ZURIA, 2019

IGOR ESTANKONA

Dedalo eta Ikaro aipatuz, hegalean metaforarekin, Elena Olavek (Durango, 1997) gaztigitzen digu, liburuaren hasiera-hasieratik, berea askatasunari eta katei buruzko liburua dela.

Joseba Sarrionandiak aitzin-solasean ere badio: "Ez dakit zelan. Ez dit dardo pozoiturik bota, ez nau plazer promesez erakarri, ez kantuararen alegantziak xarmatu. Ez diot futbolekoak bezalako golik edo espekulaziorik entzun, ez dit Nizako terrazetan paseatzen diren zinegileenak lako ipuinik kontatu. Zerenarik ere ez dut ikusi, liburuan zehar bilatu arren, ez manaturik. Elenaren poesiak bestela erakarri nau: solasean isilduz, erakutsian ezerakutsiz, ahaztuan oroitzuz, kultura lotsaz...".

Déjà vu antzeko bat, bai. Gozoa. Kasikoetara egiten du *Zeldak* labur-labur baina sakon honek, jaiotzen ari den zer edo zer iradokitzen duena, bila ari dena poesia eite bat kontsolamenduzkoa. Elena Olavek bere dudak eta bere sentimenduak errenditu gura lituzke poematan, azalpen baten aiduru bezala ikusten zaio maiz, eta denborak janda bezala. Denbora baita, aipatu zein ez, liburuaren ardatza: "Asteko neke pisuak bortizki bultzatzen gaituenean/ behera begira larriki joatera,/ denboraren igarotzeak memoria herdoildu behar duela onartzerà".

Metamorfosi guztiak liburu batean. *Zeldak* aldaketari buruzko tratatua ere bada, borroka baten testigantza, gertatzen ari zaigunari zentzua bilatzeko ahalegina.

Idazleak bere irakurketa guztiak, bere iturriak, bere inspirazioak ekarri ditu. Zitatuz eta erreferentziak beterik dago *Zeldak*.

Dekantazio bat, birfintze bat, horixe falta zaio. *Zeldak* ez baita erritmoa, edertasuna, mikaztasuna edo nerbioa. *Zeldak* da hausnarketa, izarrak irakurtzea, erantzunak bilatzea: "Gauko zeru oskarbian topa daitezkeenak iltzatuak,/ ekaitz osteko barean ostenduak, *Ikusi makusi/ jolas nomada honetan orain arte ahantziak izan ditugunak*".

Ez dizkit barruak inarrosi, ez dit ezer berria ekarri, ez nau harritu. Eroan egin nau, hori bai, Elena Olaveren erudizioan barna poesiaren esploratu gabeko zentzua lurralde ezagutzera, hegoetako argizaria urtu zaidan arte. ●